

**PRENTSAKO OHARRA****"PERTSONA EKINTZAILEAREN EGUNA" ANTOLATZEN DU LAN EKINTZAK. BILBON OSPATUKO DA, MAIATZAREN 13AN**

- Europako hiri nagusietan ekintzailtza zabaltzeko eta pertsona ekintzaileak hiriaren aurrerapenari eransten dion balioa aitortzeko egiten den ekimena da "Pertsona ekintzailearen eguna".
- Euskalduna Jauregian egingo dira maiatzaren 13ko ekitaldiak, goiz eta arratsaldeko saioetan: batetik, ekintzailtza-espereientzia berrizaleak aurkeztuko dira, eta bestetik, amaiera moduan, "Bilbo ekinean" eta "Ekintzaile handiak" sariak banatuko dira.
- Ekitaldi horiekin bukatuko da "Bilbo ekinean" programa, baina, jakina denez, hainbat laneko tailer, "Efervescente Bilbao burbuilaka" erakusketa eta "Jokoan" izeneko kaleko jolas-jarduerak ere egingo dira ekimen honen barruan.

Bilbon, 2008ko maiatzaren 7ean.

Datorren maiatzaren 13an "Pertsona ekintzailearen eguna" ospatuko da Bilbon, Europatik datorren eta kontinenteko hiri nagusietan bere isla duen ekimena, pertsona ekintzaileek eta leku bakoitzeko enpresek aldameneko ingurunearen aurrerapenari eta ongizateari eransten dioten balioa aitortzeko helburuarekin egiten dena.

Lan Ekintzak, beste erakunde eta antolamendu batzuekin batera, Jardunaldi bat antolatu du; Bilboko Euskalduna Jauregian egingo da, goiz eta arratsaldeko saioetan. Enpresetako esperientzia berritzaileak eta ekintzailtzarekin erlazionatutako alderdiak hurbiletik ezagutzeko aukera bezala planteatzen da jardunaldi hori, adibidez, ideiak sortzeko estrategiak, enpresa antolatzeko eredu berriak, norberaren izen onaren kudeaketa...

Jardunaldia bukatzeko "Bilbo ekinean" eta "Ekintzaile handiak" sariak entregatuko dira, baina aurretik, itxierako hitzaldi bat emango da, munduko karamelurik ezagunenak, chupa-chupsak, izandako arrakastaren historia, ideia berritzaile batean oinarritutako ekimena izan baitzen.

## **Bilbo ekinean**

Maiatzaren 13ra arte egingo den "Bilbao emprende - Bilbo ekinean" programa Lan Ekintzak diseinatu du, zazpigarren urtez jarraian.

Programaren barruan era askotako jarduerak sartzen dira, hala nola, laneko tailerrak, sormenean eta negozio-aukeretan oinarritzen direnak, hitzaldiak edota "**Efervescente-Bilbao Burbuilaka**" erakusketa, joan den apirilaren 28an Zabalguneko Merkatuan inauguratu zena. Erakusketa horretan beren lanean sormena sartu duten Bilboko 32 enpresen jarduera jasotzen da, eta, aldi berean, sormena eta enpresa bezalako binomioarekin lotutako aurkezpenak garatzen dira.

Ekimen horren markoan, gainera, kalean egindako "**Jokoan**" jarduerak aipatu behar dira, hau da, parte hartzeko irekitako bidea eta ekintzailetzaren gaitasunak zabaltzeko proposamen ludikoa, zuhurtzia eta norberaren trebetasuna konbinatzen dituen buru-hausgarri eta oreka-jokoz osatutako jolas-saioa. Maiatzaren 7 eta 10aren bitartean egingo da Jokoan.

## **“BILBO EKINEAN - PERTSONA EKINTZAILEAREN EGUNA”**

2008ko maiatzaren 13a

**Euskalduna jauregia** - A1 aretoa

09:00- 9:30

**Harrera** eta dokumentazio-banaketa.

09:30 -10:00

Gurutze Beitia eta Gorka Aginagaldereen esku-

- hartzea
- 10:00 -11:00 **Hasiera-hitzaldia:**
- **Juan Freire**, blogger-a: "Irekitako eta sareko antolakundeen desafioak eta aukerak"
- 11:00 -11:30 Pausaldia - Kafea
- 11:30 -13:00 **Espiritu ekintzailea:**
- **Iñaki Barredo**, Naider-eko bazkidea: "Koiuntura ekonomikoa: krisia edo aurrerako aukera"
  - **Maria Zapata**, Ashoka-ko zuzendaria Espainian: "Ekintzaitza soziala, beste ekintza modu bat".
  - **Neus Arqués**, formatu berrietako marketineko aholkularia: "Izen onaren kudeaketa"
- 13:00 -14:00 **Enpresa-esperientziak:**
- **Nadia Schnetler**, Brainstore-ko kofundatzailea: "Ideien fabrika"
  - **Jan Vazquez**, Igalia-ko fundatzailea: "Balio kooperatiboak"
- 19:30 -21:30 **Itxiera-ekitaldia**
- **Jon Sustatxa**, Lan Ekintzako Lehendakaria eta Bilboko Udaleko Enplegu, Gazteria eta Kirol Saileko Zinegotzi Delekatua.
  - **Óscar Ferrer**, Chupa-chups-eko marketin-zuzendaria: "Ideia handi baten historia"
  - "Bilbon Ekinean" eta "Ekintzaile Handiak" **sari-banaketa**

### **Agurreko koktela**

Ekitaldi hauen antolatzaileek honako erakunde hauen laguntza izan dute: Eusko Jauriaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Prestakuntza Saila; Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa; Europako Gizarte Funtsa; Garapen; Innobasque; APD; Euskal Herriko Ekonomisten Elkargoa; Telefónica; BBK; Gazte Lanbidean eta El Correo.

### **UDALA . AYUNTAMIENTO**

Prentsa Kabinetea - Gabinete de Prensa Lan Ekintza

Tfn: 94 420 52 15 / 688 88 02 28